5.3. Administrazio- espedienteen kudeaketa	4.1. Herritarren parte-hartzea	1.5. Boterea udalbatza batetik bestera eskualdatzeko prozesua	8.4. Ingurumen- eraginaren kudeaketa.	1.1. Udalean gobernuaren estrategia eta helburuak definitzeko modua	7.2. Trebakuntzaren kudeaketa	9.3. Enpresekiko koordinazioa	3.3. Kudeaketako kontuak ematea
6.2. Konpromiso ebaluagarriak (Zerbitzu Kartak)	6.2. Konpromiso ebaluagarriak (Zerbitzu Kartak)	3.2. Kudeaketako adierazleen erabilera	6.4. Kalitate- sistemak	3.2. Kudeaketako adierazleen erabilera	1.1. Gobernuaren estrategia eta helburuak definitzeko modua	6.5. Herritarren gogobetetze- mailaren ebaluazioa	7.1. Langileen beharren plangintza
100.001 baino	50.001etik	25.001etik	10.001etik	5.001etik 10.000ra	2.001etik 5.000ra	1.001etik 2.000ra	1.000 baino

Euskal Udaletako Berrikuntzari buruzko Diagnostikoa. I. Eranskina: "Gehien eta gutxien balioetsi diren 10 alderdiak"

gehiago	100.000ra	50.000ra	25.000ra				gutxiago
7.3. Jardunaren ebaluazioa	6.3. Prozesu bidezko kudeaketa	6.3. Prozesu bidezko kudeaketa	7.5. Pertsonen gogobetetze-maila ezagutu eta kudeatzea	7.1. Langileen beharren plangintza	3.2. Kudeaketako adierazleen erabilera	8.4. Ingurumen-eraginaren kudeaketa	10.2. Ziurtagiriak eta aitorpenak
9.3. Enpresekiko koordinazioa	7.4. Barne komunikazioa	6.4. Kalitate-sistemak 7.1. Langileen beharren plangintza	10.2. Ziurtagiriak eta aitorpenak	6.2. Konpromiso ebaluagarriak (Zerbitzu Kartak)	6.2. Konpromiso ebaluagarriak (Zerbitzu Kartak)	7.3. Jardunaren ebaluazioa	6.5. Herriarren gogobetetze-mailaren ebaluazioa
10.2. Ziurtagiriak eta aitorpenak	7.5. Pertsonen gogobetetze-maila ezagutu eta kudeatzea	9.3. Enpresekiko koordinazioa	3.2. Kudeaketako adierazleen erabilera	9.3. Enpresekiko koordinazioa	8.4. Ingurumen-eraginaren kudeaketa	3.2. Kudeaketako adierazleen erabilera	1.1. Udalean gobernuaren estrategia eta helburuak definitzeko modua
	8.5. Eraikinen mantentzearen kudeaketa		6.5. Herriarren gogobetetze-mailaren ebaluazioa				7.5. Pertsonen gogobetetze-maila ezagutu eta kudeatzea
	10.4. Ideia berritzaileak		7.1. Langileen beharren plangintza				

Euskal Udaletako Berrikuntzari buruzko Diagnostikoa. I. Eranskina: "Gehien eta gutxien balioetsi diren 10 alderdiak"

II. ERANSKINA: “PARTE HARTU DUTEN UDALAK”

ARABA

Alegría-Dulantzi	Burgelu	Lapuebla de Labarca	Eskuernaga
Amurrio	Elciego	Laudio	Vitoria-Gasteiz
Añana	Bilar	Legutio	Iekora
Aramaio	Erriberatoitia	Leza	Zambrana
Armiñón	Harana	Moreda Araba	Zigoitia
Arraia-Maeztu	Iruña Oka	Navaridas	
Arrazua-Ubarrundia	Iruraiz-Gauna	Okondo	
Artziniega	Kripan	Oyón-Oion	
Asparrena	Kuartango	Peñacerrada-Urizaharra	
Baños de Ebro/Mañueta	Bastida	Erribera Beitia	
Barrundia	Lagrán	Agurain	
Berantevilla	Laguardia	Samaniego	
Bernedo	Lantziego	Donemiliaga	
Kanpezu	Lantarón	Gaubea	

Euskal Udaletako Berrikuntzari buruzko Diagnostikoa. II. Eranskina: "Parte hartu duten Udalak".

BIZKAIA

Abadiño	Atxondo	Durango	Garai
Abanto Zierbena	Aulesti	Ea	Gatika
Ajangiz	Bakio	Elantxobe	Gernika-Lumo
Alonsotegi	Balmaseda	Elorrio	Getxo
Amorebieta-Etxano	Barakaldo	Erandio	Gizaburuaga
Amoroto	Barrika	Ereño	Gordexola
Arakaldo	Basauri	Ermua	Gorliz
Arantzazu	Bedia	Errigoiti	Güeñes
Areatza	Berango	Etxebarri	Ibarrangelu
Arrankudiaga	Bermeo	Etxebarria	Igorre
Arratzu	Berriatua	Forua	Ispaster
Arrieta	Berriz	Fruiz	Iurreta
Arrigorriaga	Bilbao	Galdakao	Izurtza
Artea	Busturia	Galdames	Karrantza Harana
Artzentales	Derio	Gamiz-Fika	Kortezubi

Euskal Udaletako Berrikuntzari buruzko Diagnostikoa. II. Eranskina: "Parte hartu duten Udalak".

BIZKAIA

Lanestosa	Muskiz	Ugao-Miraballes
Larrabetzu	Muxika	Urduliz
Laukiz	Nabarnik	Urduña-Orduña
Leioa	Orozko	Valle de Trápaga-Trapagaran
Lezama	Ortuella	Zaldibar
Loiu	Otxandio	Zalla
Mallabia	Plentzia	Zamudio
Mañaria	Portugalete	Zeanuri
Maruri-Jatabe	Santurtzi	Zierbena
Mendata	Sestao	Ziortza-Bolibar
Mendexa	Sondika	
Meñaka	Sopuerta	
Morga	Sukarrieta	
Mundaka	Trucios-Turtzioz	
Murueta	Ubide	

Euskal Udaletako Berrikuntzari buruzko Diagnostikoa. II. Eranskina: "Parte hartu duten Udalak".

GIPUZKOA

Abaltzisketa	Beasain	Ikaztegieta	Orio
Aduna	Beizama	Irun	Tolosa
Aizarnazabal	Belauntza	Irura	Urnietza
Albiztur	Berastegi	Itsasondo	Urretxu
Alkiza	Bergara	Larraul	Villabona
Altzaga	Donostia-San Sebastián	Lazkao	Zarautz
Amezketza	Eibar	Legazpi	
Andoain	Elduain	Leintz-Gatzaga	
Antzuola	Elgeta	Lezo	
Arama	Ezkio-Itsaso	Mendaro	
Aretxabaleta	Gabiria	Mutiloa	
Arrasate-Mondragón	Gaintza	Olaberria	
Asteasu	Getaria	Oñati	
Astigarraga	Hernialde	Ordizia	
Baliarrain	Hondarribia		

Euskal Udaletako Berrikuntzari buruzko Diagnostikoa. II. Eranskina: "Parte hartu duten Udalak".

III. ERANSKINA: “GALDERA-SORTA”

Identifikazio-datuak: (Udalerria, eskualdea eta Lurralde Historikoa kodifikatu)

Udalerria: _____

Eskualdea: _____

Lurralde Historikoa: _____

Biztanle-kopurua: _____

Jarri zifra totala laukiaren barruan eta markatu dagokion tartearen zenbakia

- 1 100.001 baino gehiago
- 2 50.001etik 100.000ra
- 3 25.001etik 50.000ra
- 4 10.001etik 25.000ra
- 5 5.001etik 10.000ra
- 6 2.001etik 5.000ra
- 7 1.001etik 2.000ra
- 8 1.000 baino gutxiago

Gaur egun udalean lanean dabilen pertsona-kopurua:

- 1 Karrerako funtzionarioak
- 2 Bitarteko funtzionarioak
- 3 Lan-kontratadun finkoak
- 4 Aldi baterako lan-kontratadunak
- 5 Langileak guztira

Aurrekontu globala:

- 1 0tik 1,2 milioi euroraino (ME)
- 2 1,2tik 2,2 ME
- 3 2,2tik 4 ME
- 4 4tik 8 ME
- 5 8tik 20 ME
- 6 20tik 60 ME
- 7 60tik 100 ME
- 8 100 ME baino gehiago

Badu web orririk:

- 1 BAI
- 2 EZ

Galdera-sorta

Adierazi zure udaleko errealitatera gehien hurbiltzen den aukera, eta borobildu zirkulu batez zure erantzunari dagokion zenbakia.

Zure udaleko egoera planteatzen diren bi egoeraren artean dagoela iruditzen bazaizu, markatu bi zenbakietako baxuena, litekeena baita egoera hori neurri handiagoan betetzea.

ERANTZUN BAKARRA AUKERATU BEHAR DUZU BETI.

1. Politiken plangintza eta definizioa

1.1. Zein da zure udaleko egoerarekin antz gehien duen aukera, gobernu-taldearen estrategia eta helburuak definitzeari dagokionez? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Udalaren politika hauteskunde-programaren eta udal aurrekontuaren inguruan artikulatzen da. Bi horiek dira erreferentziazko dokumentuak udal politikarako; hala legegintzaldirako nola urteko kudeaketarako.
2.	Sail edo Departamendu batzuek dokumentu espezifikoak dituzte, legegintzaldirako lan-plana jasotzen dutenak; urtero, dokumentu horiek kudeaketa-helburuetan gauzatzen dira.
3.	Sail edo Departamendu gehienek dokumentu espezifikoak dituzte, legegintzaldirako lan-plana jasotzen dutenak; urtero, dokumentu horiek kudeaketa-helburuetan gauzatzen dira.
4.	Udalak dokumentu batean jasotzen ditu legegintzaldian zehar garatu beharreko estrategiak eta lortu beharreko helburu nagusiak, eta urtero dokumentu hori antolakuntza osorako kudeaketa-plan batean gauzatzen da.
5.	Legegintzaldian zehar garatu beharreko estrategiak eta bete beharreko helburu nagusiak jasotzen dituen dokumentua sarri erabiltzen da kudeaketaren jarraipena egiteko, eta berrikusi egiten da beharrezkoa denean. Sail gehienek beren estrategia eta helburuen dokumentua prestatzen dute, udalerako prestatutako dokumentutik abiatuta, eta beren kudeaketako alderdi espezifikoekin osatzen dute.

1.2. Sail bakoitzak edo udal osoak legegintzaldirako izango dituen estrategia eta helburuak jasotzen dituen dokumentu bat edukitzekotan, esaldi hauetako zeinek adierazten du hobekien dokumentu horrek aurrekontuak prestatzeko prozesuan duen integrazio-maila? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Prozesu paraleloak dira, baina ondoren behar bezalako integrazioa lortzen saiatzen da.
2.	Garatu beharreko estrategiak eta bete beharreko helburuak zehazterakoan aurrekontu-beharrak zehazten dira, baina horiek ez dira kontuan hartzen aurrekontuak prestatzeko prozesua hasi arte.
3.	Estrategia eta helburuen prestaketa aurrekontuekin egiaztatzen da, baina prozesu bereiziak dira.
4.	Garatu beharreko estrategiak eta lortu beharreko helburuak zehazteko prozesua artikulatu eta koordinatu egiten da aurrekontuak prestatzeko prozesuarekin. Izan ere, biek prozesu bera osatzen dute.
5.	Biek prozesu bera osatzen dute, prestatzerako orduan zein jarraipenean eta kudeaketan.

1.3. Nola koordinatzen dira egon litezkeen sektore-planak edo zeharkako planak; hots, besteak beste aukera-berdintasuna, immigrazioa, pertsona nagusiak, gazteria edo euskararekin lotutakoak? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Ez dago sektore-planik edo zeharkako planik berez, baina politika espezifikoak garatzen dira halako eremuetan.
2.	Sektore-planek edo zeharkako planek oso funtzionamendu independentea dute, eta koordinazio-bilerak aldizkako behar jakinengatik baino ez dira egiten.
3.	Aldian behin koordinazio-bilera batzuk egiten dira plan desberdinen arduradunen artean.
4.	Bilerak programatutako maiztasun batekin egiten dira, plan desberdinak koordinatzeko, edo gutxienez plan gehienak.
5.	Sektore-planak edo zeharkako planak Legegintzaldi edo Agintaldiko Planaren barruan sartuta daude, eta esparru horretan etengabe koordinatzen dira.

1.4 Udalean nola lantzen da udalerriaren etorkizuna? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Udalerriaren etorkizuna Hiri Antolamendurako Plan Nagusian (HAPN) jasota dago.
2.	HAPNan agertzen denaz gainera, etorkizunean udalerriaren bereizgarri izateko landu nahi diren alor garrantzitsuak identifikatu dira. Ezaugarri horiek kontuan hartzen dira udalaren lana planifikatzerakoan.
3.	Gure udalerriaren etorkizunerako nahi ditugun ezaugarriak jasotzen dituen dokumentu bat dugu, baina dokumentu horrek zerikusi gutxi du udalaren eguneroko kudeaketa-lanarekin.
4.	Udalerrirako (edo gure eskualderako) plan estrategiko bat dago, udalaren estrategia eta helburuekin nolabaiteko lotura duena, eta inspirazio eta zabalkunderako erreferente gisa erabiltzen dugu udalerrian.
5.	Udalerrirako (edo gure eskualderako) plan estrategiko bat dago, eta erreferentzia gisa erabili da legegintzaldiko edo agintaldiko plana prestatzerakoan, plan estrategikoarekin bat datozen estrategia eta helburuak artikulatu baitira bertan.

1.5 Nola egiten da gobernu-taldearen aldaketa legegintzaldi batetik bestera? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Talde berriak bere erantzukizunak hartzen dituen erabakitzen du nola arduratu udalaren kudeaketaz.
2.	Gobernutik ateratzen den taldeko kide bakoitzak erabakitzen du nola eskualdatu informazioa bere ardura hartuko duen pertsonari, beharrezkotzat jotzen badu.
3.	Gobernutik ateratzen den taldeko kideak beren ardurak hartu behar dituztenekin elkarriketatzen dira, eta ahoz azaltzen dizkiete adierazgarrienak iruditzen zaizkien gaiak.
4.	Gobernutik ateratzen den taldeko kideak beren ardurak hartu behar dituztenekin elkarriketatzen dira, ahoz azaltzen dizkiete adierazgarrienak iruditzen zaizkien gaiak eta eska dezaketen informazioa ematen diete.
5.	Formalki ezarritako prozedura bat dago, eta haren eraginez, udaleko informaziorik garrantzitsuena jasotzen duen boterea eskualdatzeko txosten bat prestatu behar da. Txosten hori gobernu-taldeko kide berriei ematen zaie, eta haiekin bilera bat egiten da zalantzak argitu eta udaleko teknikariak haiei aurkezteko.

2. Lidergoa

2.1 Esaldi hauetako zeinek adierazten du hobekien udal gobernuak nola funtzionatzen duen? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Udal gobernuak alkatea du ardatz, eta gai garrantzitsu guztiak haren eskuetatik igarotzen dira. Gobernu-batzordeak (hala badagokio) eta ordezkartzek (hala badagokie) gauzatzen dituzte alkatetzak hartutako erabakiak.
2.	Alkatea da udal gobernuaren funtzionamendurako elementu nagusia. Horretarako, hainbat alorretan erantzukizunak eskuordetuta dituzten zenbait zinegotzik sostengatzen dute alkatea, eta hark haiekin batera hartzen ditu erabakirik garrantzitsuenak.
3.	Alkateak garrantzia handia du udal kudeaketan, baina Gobernu-batzordea da udalaren kudeaketako elementu nagusia.
4.	Gobernu-taldea astero biltzen da gai nagusiak aztertzeko. Hantxe erabakitzen dira gerora gobernu-batzordera eramango diren jarrera politikoak.
5.	Gobernu-taldea astero biltzen da jarrera politikoa hartzea eskatzen duten gaien inguruan eztabaidatzeko. Bestalde, alkatea (edo haren ordezkaria) maiztasun berarekin biltzen da udaleko erantzukizun teknikoaren duten pertsonekin, gaiak ikuspegi teknikoago batetik lantzeko. Gobernu-batzordeak betetzen ditu legez ezarritako eginkizunak.

2.2. Nola deskribatzen da hobekien udaleko erantzukizun teknikoaren egitura? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Erantzukizun teknikoaren egitura idazkari edo kontu-hartzailearengan oinarritzen da, eta gainerako teknikariak (halakorik badago) haien mende daude.
2.	Udaleko teknikari bakoitzak erantzukizun-alor espezifiko bat du, eta autonomia da, nahiz eta idazkariak eta kontu-hartzaileak pisu gehiago izan, zeharkako lana egiteagatik eta gobernu-batzordean egoteagatik.
3.	Departamendu edo Sail desberdinak definitu dira, eta horietako bakoitzean pertsona batek hartzen du erantzukizun teknikoaren. Ez dago arduradun guzti horien zuzendaritza teknikorako organo partekaturik.
4.	Departamendu edo Sail desberdinak definitu dira, eta horietako bakoitzean pertsona batek hartzen du erantzukizun teknikoaren. Arduradun guztiak biltzen dituen organo bat dago, eta aldi berean behin eta modu erregularrean biltzen da, alkatea edo haren ordezkaria ere bertan dela.
5.	Udaleko erantzukizun teknikoaren egitura zuzendari publiko edo udaleko gerentearen inguruan antolatuta dago. Pertsona horrek koordinatzen ditu udal sail edo departamenduetako arduradunak, alkatetzarekin eta gobernu-batzarrarekin batera. Aldi berean biltzen den kide anitzeko organo politiko eta tekniko bat dago.

2.3 Esaldi hauetako zein da egokiena zure udalean arduradun politiko eta teknikoen artean dagoen harremana deskribatzeko? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Harremana puntuala da. Oro har, teknikariak bere lan-plana du, eta gai politikoren bat edo herritarren eskaeraren bat eztabaidatu behar denean baino ez da harekin hitz egiten.
2.	Teknikarien eta lan-eremu bereko arduradun politikoaren artean harremana egon ohi da. Harreman horrek ez du maiztasun finkorik, eta aldatu egiten da teknikariaren edo politikariaren beharren arabera.
3.	Alor jakin bateko ardura politikoa duen pertsona alor horretako arduradun teknikoarekin dago harremanetan, funtsean, eta ez teknikari guztiekin. Harreman hori ohiko moduan gauzatzen da, eta informazioa eta irizpide politikoak trukatzeko balio du.
4.	Erantzukizun politikoa duen pertsona bakoitzak arduradun teknikoarekin izan beharreko harremanak maiztasun finkatua du, eta planteatutako plan eta helburuen jarraipena egiteko da.
5.	Arduradun tekniko bakoitzak arduradun politiko bakoitzarekin duen harremanaz gain, organo politiko eta tekniko bat dago; bertan lantzen dira udalaren kudeaketarako onuragarri diren gaiak, eta udalbatzak ezarritako plan eta helburuen jarraipena egiten da.

3. Gardentasuna eta kontuak ematea

3.1 Adierazi aukera hauetatik zeinek adierazten duen hobekien udalaren errealitatea, adierazten diren alorretan. (Zutabe bakoitzean bat bakarrik aukeratu)

		Gai hauei buruzko informazioa:				
		Udalbatza	Gai ekonomikoak	Kontratazioa eta erosketak	Hirigintza	Udal proiektuak
1.	Aldez aurretik idatziz eskatu eta alderdi interesatua zarela egiaztatzen baduzu, informazioa eskuragarri izango duzu.					
2.	Informazioa eskuragarri izango du edonork, aldez aurretik eta idatziz eskatuta.					
3.	Informazioa edonorentzako eskuragarri dago eta posta elektroniko bidez eska daiteke.					
4.	Informazioa eskuragarri dago udalaren web orrian, baina ez dago beti eguneratuta					
5.	Informazioa eskuragarri dago udalaren web orrian eta etengabe eguneratzen da					

3.2 Zein neurritan erabiltzen ditu udalak adierazleak, kudeaketarako? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Ez dugu adierazlerik edo ditugunak oso puntualak edo garrantzi gutxikoak dira, eskaintzen duten informazioagatik edo haiek erabil ditzakegun uneagatik.
2.	Sail batzuek beren jardueren eta lanen adierazleak dituzte.
3.	Sail gehienek adierazleak dituzte, egiten dituzten jarduera eta lanei buruzko informazioa ematen dietenak.
4.	Aurreko puntuan adierazitakoaz gainera, adierazle horiek erabili egin ohi dituzte saileko kudeaketaren jarraipena egiteko bileretan.
5.	Udalak zenbait adierazle identifikatu ditu, funtzionamendua, emaitzak eta helburuen betetze-maila neurtzeko funtsezkotzat hartzen dituenak. Adierazle-multzo horiek aginte-koadro bat osatzen dute, udalaren kudeaketarako foro edo eztabaida-leku desberdinetan erabili ohi dena.

3.3 Aukera hauetatik zeinek adierazten du hobekien udalak kudeaketa-kontuak nola ematen dituen? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Kudeaketako kontuak Osoko Bilkuretan ematen dira, gai-zerrendan sartutako puntuen bitartez, eta aurkez daitezkeen mozioen bitartez.
2.	Osoko Bilkurez gain, udal jardueraren lorpenak aurkezteko prentsaurrekoetan ere ematen dira udal kudeaketaren kontuak.
3.	Udal kudeaketaren kontuak prentsaurrekoetan eta hedabideekin lotutako bestelako jardueretan ematen dira. Halaber, web orria erabiltzen da udalak zer egiten duen eta funts publikoak nora bideratzen diren azaltzeko. Udal Osoko Bilkuran, bestalde, kontuak jendaurrean ematen dira, baina Osoko Bilkurako ohiko gaietatik kanpo.
4.	Udalak adierazle-multzo bat du, udal kudeaketaren alderdirik garrantzitsuenen egoera zein den ezagutu ahal izateko. Adierazle horiek web orrian ikus daitezke, eta aldian behin hedabideei aurkezten zaizkie; gainera, urtero Udal Osoko Bilkuran egiten den “udalerrriaren egoerari” buruzko eztabaidarako oinarri gisa balio dute.
5.	Udalak helburu batzuk ditu ezarrita, eta horien inguruan adierazle batzuk identifikatu dira, helburu horiek zein neurritan bete diren balioetsi ahal izateko. Informazio hori guztia eskuragarri dago udalaren web orrian eta beste komunikabide batzuen bitartez hedatzeko erabiltzen da. Halaber, Osoko Bilkuran urtero egiten den “udalerrriaren egoerari” buruzko eztabaida elikatzen du.

4. Parte-hartzea

4.1 Zein esaldik deskribatzen du hobekien udalean herritarren parte-hartzeari dagokionez dagoen egoera? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Herritarren parte-hartzea indarrean dagoen legediak definitutako lanabesen bitartez artikulatzen da: jendaurreko erakusketa, herritarrei irekitako osoko bilkurak, kexa eta iradokizunetarako web postontzia...
2.	Herritarrek beren iritzia agertzeko legezko bideez gain, udalerrian lan egiten duten elkarte eta entitateetako herritarren ordezkariekin bilerak egiten dira aldian behin. Bilera horietan interesa dakizkiekeen gaiak ezagutzera ematen zaizkie, eta haiek egindako galderei erantzuten zaie.
3.	Herritarrek beren iritzia adierazteko legezko bideez gain, eta herritarren ordezkariekin haiei informazioa emateko eta haien iritzia jasotzeko egiten diren bilerez gain, parte-hartze prozesuak egiten dira tarteka, politika batzuk diseinatzeko prozesuan herritarrek txertatzeko (hirigintza-proiektuak, gazteriakoak, kulturakoak...).
4.	Udalak garatutako ekintza eta proiektu gehienetan parte-hartze prozesuak proposatzen dira ekintza eta proiektu horiek diseinatzeko, eta haien jarraipen eta ebaluazioa egiteko.
5.	Herritarren parte-hartzea udal kudeaketako parte izan ohi da Udalaren estrategia eta helburuak definitzean, eta haien oinarri ekonomikoa den udal aurrekontua prestatzean, herritarren parte-hartzerako prozesuak egiten dira.

4.2 Zer nolako parte-hartzea dute udal zerbitzuen erabiltzaileek zerbitzu horien funtzionamenduan? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Udal zerbitzuen erabiltzaileek ohiko bideak erabil ditzakete kexa eta iradokizunak aurkezteko.
2.	Udal zerbitzuak eskaintzen dituzten pertsonen arretaz jasotzen dute zerbitzuetako erabiltzaileek adierazten duten iritzia edo iradokizun oro.
3.	Zenbait zerbitzutan inkestak egiten ditugu zerbitzu-erabiltzaileen iritzia ezagutzeko.
4.	Zerbitzu nagusietan parte-hartze prozesuak egiten dira haietako erabiltzaileekin, haien ikuspegiak zerbitzu horien diseinuan txertatzeko.
5.	Zerbitzu nagusietan parte-hartze prozesuak egiten dira haietako erabiltzaileekin, haien ikuspegiak zerbitzu horien diseinuan txertatzeko, bai eta zerbitzuak emateko moduan eta ebaluazioan ere.

4.3 Nola bideratzen eta kudeatzen dira herritarren ohar, kexa eta erreklamazioak? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Iradokizun-postontzi fisiko bat dago, edo udal web orriaren bitartez egin daiteke. Jasotakoa alkateari eramaten zaio, hark balioetsi dezan.
2.	Iradokizun-postontzi fisiko bat dago, eta udal web orriaren bitartez ere egin daiteke. Jasotakoa gaiarekin lotutako sailari eramaten zaio, hark kudea dezan.
3.	Iradokizun-postontzi fisiko bat dago, eta udal web orriaren bitartez ere egin daiteke. Jasotakoa gaiarekin lotutako sailari eramaten zaio, hark kudea dezan, eta pertsona guztiei erantzuten zaie, zein neurri hartuko den azalduz, hala egingo bada.
4.	Aurreko puntuan adierazitakoaz gain, jasotako kexa guztien jarraipena egiten da, eta besteak beste, erantzuteko behar izan den denborari buruzko adierazle eta helburuak sortzen dira.
5.	Jasotako kexei erantzun eta haiek kudeatzeaz gain, aztertu egiten dira, planteatutako arazoak prebenitzeko nola lan egin litekeen jakiteko. Lan horien jarraipena egiten da.

5. Administrazio irisgarria, herritarrekiko hurbila

5.1 Zein esaldik deskribatzen du hobekien herritarrek udalean jasotzen duten arreta? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Sail bakoitzak herritarrei, aurrez aurre zein telefonoz edo Internetez, harrera egiteko pertsonak ditu.
2.	Lehen aurrez aurreko arreta zentralizatuta dago, baina informazioa emateko baino ez. Kudeaketak Saileratara bideratzen dira. Telefono bidezko harrera saileratit egiten da.
3.	Lehen aurrez aurreko harrera zentralizatuta dago, baina informazioa emateko baino ez. Kudeaketa-lan oro Saileratit egin behar da.
4.	Aurrez aurreko zein telefono bidez harrera zentralizatuta dago. Harrera hori egiten duten pertsonak oinarritzko kudeaketa-lanak ere egiten dituzte sailen batean.
5.	Herritarrentzako harrera (aurrez aurrekoa zein telefono edo Internet bidezkoa) udaleko sail guztietako kudeaketa-lan oinarritzko eta estandarizatuenak egiten dituen zerbitzu batean zentralizatuta dago.

5.2 Zer nolako web orria du zure udalak? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Funtsean, informazioa emateko orria da.
2.	Funtsean informazioa emateko orria da, eta kudeaketa batzuk egin daitezke haren bidez, baina ezin da izapide osorik egin, kasu jakinetan izan ezik.
3.	Funtsean informazioa emateko orria da, eta bertan kudeaketa-lan batzuk has daitezke, eta izapide gutxi batzuk osorik egin ere bai (prozedura guztien %25 baino gutxiago).
4.	Izapide osoak egiteko aukera ematen duen eta nahiko interaktiboa den orria da.
5.	Web orria nahiko interaktiboa da, eta herritarrei aukera ematen die informazioa eta iritziak txertatzeko. Halaber, Bulego Elektroniko Birtual gisa funtzionatzen du, eta bertan, udaleko prozedura nagusiak izapidetu daitezke.

5.3 Administrazio-espedienteen kudeaketaren ikuspegitik, zein esaldik deskribatzen du hobekien zure udaleko egoera? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Espedienteak eskuz kudeatzen dira. Jarraipena modu informalean egiten da.
2.	Espedienteak eskuz kudeatzen dira. Espediente gehien jarraipena egiteko, kalkulu-orri edo datu-base estandar bat erabiltzen da.
3.	Oinarrizko programa informatiko bat dago, espedienteak kudeatzeko, eta bakoitza zein fasetan dagoen jakiteko aukera ematen du.
4.	Aurrekoaz gainera, beharrezko dokumentuak espediente informatikoari eransteko eskaneatu egiten dira, eta hala espediente fisikoa ez da mugitu behar kontsultatu ahal izateko.
5.	Aurreko puntuez gainera, herritarrek Internet bidez ikus dezakete beren espedienteen egoera.

5.4 Administrazioaren sinplifikazio eta azkartasunaren aldetik, zer esango zenuke? (Bat bakarrik aukeratu):

1.	Izapidetze-prozedurak oso modu puntualean eta noizean behin baino ez dira berrikusi, sinplifikatzeko.
2.	Prozedura batzuk berrikusi eta sinplifikatu egin dira.
3.	Izapidetzen ditugun prozeduren zerrenda bat dugu, eta gutxi gorabehera badakigu zeintzuk diren izapide guztien %80 ekartzen duten prozedurak. Espediente horietatik, heren bat inguru berrikusi eta sinplifikatu dugu.
4.	Espediente horietatik, erdia inguru berrikusi eta sinplifikatu dugu.
5.	Espediente horietatik, ia guztiak berrikusi eta sinplifikatu ditugu.

6. Zerbitzuen kudeaketa

6.1 Zerbitzuen katalogoa. Esaldi hauetako zeinek deskribatzen du hobekien zure udaleko egoera? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Udalak herritarrei ematen dizkien zerbitzuen zerrenda argi eta publikorik ez dago.
2.	Udalak herritarrei ematen dizkien zerbitzuen zerrenda argi eta publikorik ez dago. Hala ere, zerbitzu batek edo bestek badu dokumentu bat, zein zerbitzu eskaintzen dituen jasotzen duena (zerbitzu-katalogo bat).
3.	Zerbitzu-katalogo bat dago udal osorako, baina barne-erabilerarako baino ez da, funtsean.
4.	Zerbitzu-katalogo bat dago udal osorako, herritarrei ezagutzera ematen zaie eta udalaren web orrian dago ikusgai.
5.	Udalak udal zerbitzuen katalogo bat du, udalaren web orrian ikusgai dagoena, eta aldian behin ezagutzera eman eta berrikusten da.

6.2 Zure Udalak ematen dituen zerbitzuek hartu al dute herritarrekin publikoki kontrasta daitezkeen adierazleen bidez (zerbitzu-kartak) ebaluatzeko moduko konpromisorik? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Gure zerbitzuek ez dute halako konpromisorik hartu.
2.	Zerbitzu batzuek zein zerbitzu eskaintzen dituzten eta haietara nola sartu azaltzeko dokumentuak argitaratu dituzte, baina ez dute ebaluatzeko moduko konpromisorik herritarrekin edo konpromiso horiek generikoegiak dira.
3.	Zerbitzu-kartak ditugu, konpromisoa hartzen dutenak, zerbitzuetako batzuetan.
4.	Zerbitzu-kartak ditugu, konpromisoa hartzen dutenak, herritarrentzat garrantzitsuenak diren zerbitzuen erdian baino gehiagotan.
5.	Aurreko puntuaz gainera, konpromiso horiei jarraipen etengabea egiten zaie, web orrian argitaratzen da zein neurritan bete diren eta aldian behin eguneratu egiten dira.

6.3 Zure udalak erabiltzen al du “prozesuen bidezko kudeaketa” deritzona? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Ez dugu erabiltzen prozesu bidezko kudeaketarik.
2.	Sailen batek identifikatu ditu bere funtsezko prozesuak, eta bada prozesu-talderen bat, haiek kudeatzeko.
3.	Hainbat sailek bere prozesuen mapa prestatu du, eta talde batzuk ditu funtsezko prozesuak kudeatzeko.
4.	Udal osorako prozesu-mapa bat dugu, eta badago nolabaiteko udal prozesu-talde bat.
5.	Udal prozesuen mapa bat daukagu, eta udal osoko funtsezko prozesuak kudeatzen dituzten prozesu-taldeena.

6.4 Zure Udalak ba al du kalitate-sistematik zerbitzu-kudeaketan? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Ez
2.	Kalitate-sistemaren bat erabiltzen dugu, baina ez dugu kanpoko ziurtagiri edo aitortpenik.
3.	ISO ziurtagiria duen zerbitzuren bat edo beste dago.
4.	EFQM aitortpen bat (edozein mailatan) jaso duen zerbitzuren bat edo beste dago.
5.	Udalak, oro har, kalitatea ziurtatzeko egiaztagirak (ISO) edo EFQM aitortpenak ditu (edozein mailatan).

6.5 Zein da zure Udalaren egoera erabiltzaile eta herritarrek zerbitzuen inguruan duten gogobetetze-maila ebaluatzeko metodologiari dagokionez? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Jaso ditzakegun kexa eta iradokizunez gain, ez dugu ebaluatzen zerbitzuetako erabiltzaileek edo herritarrek zerbitzu horiekiko duten gogobetetze-maila.
2.	Zerbitzu batek edo bestek gogobetetze-maila ezagutzeko inkestak egiten dizkie erabiltzaileei.
3.	Zerbitzu gehienek gogobetetze-maila ezagutzeko inkestak egiten dizkiete erabiltzaileei.
4.	Aurreko puntuaz gain, herritarrek (zerbitzuak erabili zein ez) zerbitzuen inguruan duten gogobetetze-maila aztertzen da.
5.	Sistematika bat ezarri dugu herritarrek oro har eta erabiltzaileek gure zerbitzu nagusien inguruan duten gogobetetze-maila ezagutzeko. Emaitzak udalaren eguneroko kudeaketarako erabiltzen dira.

7. Enplegatuen kudeaketa

7.1 Nola planifikatzen dira udaleko langileen beharrak? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Inkorporazioak edo lekualdatzeak egiteko beharrak sortu ahala konpontzen dira.
2.	Udal departamendu edo sailek nolabaiteko aurrerapenez planteatzen dituzte dauden lanpostuekin lotutako beharrak.
3.	Urtero, aurreikus daitezkeen langileen behar guztiak berrikusten ditugu, eta haiei aurre egiteko estrategiak ezartzen ditugu.
4.	Langileek hainbat urtetan izango dituzten beharren diagnostiko bat dago, eta hortik abiatuta zehazten dira jarduteko estrategiak.
5.	Langileek hainbat urtetan izango dituzten beharren diagnostiko bat dago, eta aldian behin eguneratzen da. Diagnostiko hori langileen artean garapen profesionaleko prozesuak diseinatzeko erabiltzen da.

7.2 Esaldi hauetako zeinek deskribatzen du hobekien udalean enplegatuen trebakuntza nola kudeatzen den? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Enplegatuen trebakuntza-beharrak oso puntualak eta aldian behinekoak dira. Sortzen direnean, aztertu egiten dira, eta haiek finantzatzeko aukera aztertzen da.
2.	Trebakuntzarako aurrekontu-partida bat dago, eta enplegatuek eskaerak egiten dituzten neurrian, erabili egiten da.
3.	Urtean behin, enplegatuek proposatzen dituzten trebakuntza-beharrei buruzko informazioa eskatzen da. Hori oinarritzat hartuta, eta gasturako zein ahalmen dagoen kontuan hartuta, trebakuntzara bideratuko den partida zehazten da. Trebakuntzarako eskaerak jasotzen diren neurrian gastatzen da partida hori.
4.	Urtean behin, enplegatuek proposatzen dituzten trebakuntza-beharrei buruzko informazioa eskatzen da. Hori oinarritzat hartuta, eta gasturako zein ahalmen dagoen kontuan hartuta, Trebakuntza Plana egiten da, trebakuntza-ekintzetarako eta haien finantzaketarako erreferentzia gisa balio duena.
5.	Urtero, Trebakuntza Plan bat prestatzen da, Udalak planteatzen dituen helburu estrategikoetatik abiatuta, sailtako arduradunek eta sailtan lan egiten duten guztiek hautematen dituzten trebakuntza-beharrak identifikatzeko. Plan horrek aurrekontu bat du, eta egin edo finantzatu beharreko trebakuntza-jarduerak zehazten ditu.

7.3 Udalean nola ebaluatzen da jarduna eta nola txalotzen da lan ona? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Ez dago jarduna ebaluatzeko politikarik, ez eta lan ona txalotzekorik; arduradunak iruzkinen bat egin diezaioke lan ona egin duenari, hala baderitzo, baina besterik ez.
2.	Ez dago jarduna ebaluatzeko politikarik, baina arduradun tekniko eta politikoez, langile edo talde batek ondo lan egin duela hautematen badute, jendaurrean aitortzen dute.
3.	Sail edo departamenduetan helburu batzuk definitu dira, saila osatzen duten pertsona-taldeen jarduna eraginkorra den balioesteko balio dutenak, baina ez dago txalotzeko politika zehatzik, talde horiek helburuak bete edo gaingitzen dituztenerako.
4.	Aurrekoaz gainera, dokumentu batean zehaztu da sail edo departamendu batean nork, nola, noiz eta zergatik txalotu behar duen.
5.	Helburuak definitu dira, gutxienez, talde-mailarako, eta horri esker jardunaren eraginkortasuna balioetsi daiteke. Halaber, nork, nola, noiz eta zergatik txalotu behar duen zehazten duen dokumentu bat dago.

7.4 Zein esaldik adierazten du hobekien zure udala zein egoeratan dagoen barne komunikazioari dagokionez? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Ez dago barne-komunikaziorako arau espezifikorik. Bakoitzak egokitzen jotzen duena jakinarazten die ardurapean dituen pertsonen.
2.	Erakunde osora iritsi beharreko informazioaren bat dagoenean, bilerak antolatzen dira edo estrategia zehatzak garatzen dira, informazioa guztiei iritsi zaiela ziurtatzeko.
3.	Informazioa emateko antola daitezkeen bilerez gain, beharrezkotzat jotzen den informazioa erakundeari helarazteko mekanismoak ditugu. Adibidez, zerbitzari partekatuan edo iragarki-oholean jartzen da, barne-aldizkarian argitaratu edo udalaren Intranetean ezagutzera eman. Ez da ezarri goitik beherako komunikazio-bide argirik.
4.	Lanpostuen informazio-beharrak identifikatu dira, eta estrategia eta mekanismoak ezarri dira (Intranet, aldizkaria...) behar duten informazioa iristen zaiela ziurtatzeko. Taldeko arduradunek beren taldeei behar duten informazioa helarazteko erantzukizun espezifiko hartu dute.
5.	Barne-komunikazioa erantzukizun partekatua da. Erakundeko pertsona guztiek arduratu behar dute jaso dezaketen informazioa erakundeko pertsonekin partekatzeaz, eta zerbaitek udal erakundearen helburuak betetzen lagun dezakeela uste badute, informazio hori helarazi behar dute. Dokumentu batean zehaztu dira lanpostuen informazio-beharrak, eta informazioa helarazteko mekanismorik egokienak. Komunikaziorako bideek goitik behera zein behetik gora funtzionatzen dute.

7.5 Nola ezagutu eta kudeatzen da erakundean lan egiten duten pertsonen gogobetetze-maila? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Ez dago modu espezifikorik erakundean lan egiten duten pertsonen gogobetetze-maila ezagutu eta kudeatzeko.
2.	Udalean ditugun kontaktu eta harremanei esker ezagutzen dugu erakundeko pertsonen gogobetetze-maila, eta sindikatuetakordezkariek planteatzen digutenari esker.
3.	Udalean ditugun kontaktu eta harremanei esker ezagutzen dugu erakundeko pertsonen gogobetetze-maila, eta sindikatuetakordezkariek planteatzen digutenari esker. Aurrekoaz gainera, zeharkako zenbait adierazle ditugu, langileen gogobetetze-maila neurtzen laguntzen digutenak (hala nola pertsona bakoitzeko trebakuntza orduak, absentismo-indizea...)
4.	Aurrekoaz gainera, zeharkako adierazleak ditugu. Hori oinarritzat hartuta, urtero ekintza-plan bat ezartzen dugu, gogobetetze-mailak hobetzeko.
5.	Zeharkako adierazleez gain, udalean lan egiten duten pertsonekin bilera espezifikoak egiten ditugu aldian behin, haien gogobetetze-maila ezagutzeko, eta lehen tokian hobetu beharreko alorrak identifikatzeko, edota gogobetetze-mailari buruzko inkesta egiten dugu. Hori oinarritzat hartuta, urtero ekintza-plan bat ezartzen dugu, gogobetetze-mailak hobetzeko.

8. Baliabideen kudeaketa

8.1 Zein esaldik deskribatzen du hobekien udalak nola kudeatzen duen aurrekontua? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Aurrekontuaren kudeaketa indarrean dagoen legezko araudian ezarritakoaren arabera egiten da.
2.	Aurrekontuaren kudeaketak txostenak ematen ditu aldian behin, exekuzio-mailaren eta erabakiak hartzeko erabilgarri diren beste zenbait adierazleren inguruan.
3.	Aurrekontuaren kudeaketak informazioa ematen du hilerio aurrekontuaren exekuzioari buruz, eta erabakiak hartzeko garrantzitsuak diren bestelako gaiei buruz.
4.	Aurrekontua planifikatu, kudeatu eta kontrolatzeko sistema integrala dugu.
5.	Aurrekontua planifikatu, kudeatu eta kontrolatzeko sistema integrala dugu, eta horren barruan, kontabilitate analitikoa, udal zerbitzu bakoitzaren kostuak ezagutzeko aukera ematen diguna.

8.2 Nola deskribatuko zenuke zure udalean erosketak eta obra eta zerbitzuen kontratazioa kudeatzeko modua? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Unitate edo departamendu bakoitzak kudeatzen ditu bere erosketak eta obra eta zerbitzuen kontratazioak.
2.	Unitate edo departamendu bakoitzak kudeatzen ditu bere erosketak. Zenbateko jakin batetik gorako obra eta zerbitzuen kontratazioak zentralizatuta daude, eta gainerakoak kontratazio bakoitzarekin lotuta dauden unitate edo departamenduek egiten dituzte.
3.	Unitate edo departamendu bakoitzak kudeatzen ditu bere erosketak, baina obra eta zerbitzuen kontratazioak zentralizatuta daude.
4.	Erosketen eta obra eta zerbitzuen kontratazioaren kudeaketa zentralizatuta dago.
5.	Erosketen eta obra eta zerbitzuen kontratazioaren kudeaketa zentralizatuta dago, eta iraunkortasuna, ingurumenarekiko errespetua eta elkartasuna irizpide gisa hartuta egiten da.

8.3 Nola kudeatzen dira zure udaleko teknologia-baliabideak? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Berritzeko beharra hautematen den neurrian, teknologia-baliabideak eguneratzen dira.
2.	Noizean behin, sail edo departamenduetako arduradunek eskura dituzten teknologia-baliabideak berritzeko beharrak planteatzen dituzte, eta hauteman dituzten behar berriak.
3.	Urtean behin, modu programatuan, sail edo departamenduetako arduradunek eskura dituzten teknologia-baliabideak berritzeko beharrak planteatzen dituzte, eta hauteman dituzten behar berriak.
4.	Teknologia-baliabideak berritzeko plan bat dugu, haiek zaharkituak gelditzeari aurre hartzeko. Arduradunen proposamenei esker identifikatzen dira behar berriak.
5.	Metodologia bat dugu, teknologiako berritasunak hauteman, haiek udalerako lagungarri izan litezkeen aztertu, eta haiek erabiltzen hasteko plan bat ezartzeko. Gainera, teknologia-baliabideak berritzeko plan bat dugu, haiek zaharkituak gelditzeari aurre hartzeko.

8.4 Zure ustez, zein esaldik deskribatzen du hobekien udalak bere lanaren ingurumen-eraginarekiko duen egoera? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Udalak ez du egin ingurumen-eraginaren analisirik, ez eta ingurumen-arriskuak murrizteko planik ere.
2.	Sail edo departamendu batzuek beren lanak ingurumenean duen eragina ezagutzeko analisia egin dute.
3.	Sail edo departamendu batzuek beren lanak ingurumenean duen eragina ezagutzeko analisia egin dute, eta arriskuak murrizteko planak ezarri dituzte.
4.	Udalak ingurumen-arriskuak analizatu ditu, eta ingurumen-arriskuak murrizteko planak ezarri ditu. Sail edo departamendu batzuek ISO 14.000 ziurtagiriak dituzte.
5.	Udalak ingurumen-arriskuak analizatu ditu, eta ingurumen-arriskuak murrizteko planak ezarri ditu. Sistema hori ISO 14.000 arauaren bitartez egiaztatu da.

8.5 Zure Udalean nola kudeatzen da eraikinen mantentzea? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Eraikinen mantentzea beharra sortu ahala egiten da.
2.	Noizean behin, sail edo departamenduetako arduradunek beren ardurapean dauden eraikinetako mantentze-beharrak planteatzen dituzte.
3.	Urtean behin, modu programatuan, sail edo departamenduetako arduradunek beren ardurapean dauden eraikinetako mantentze-beharrak planteatzen dituzte.
4.	Udalaren ardurapean dauden eraikinak mantentzeko prebentzio-plan bat dago.
5.	Udalaren ardurapean dauden eraikinak mantentzeko prebentzio-plan bat dago, eta iraunkortasuneko eta espazioak optimizatzeko irizpideak ditu. Plan hori aldian behin kudeatu eta ebaluatzen da.

9. Lankidetzatza

9.1 Nola koordinatzen da udalaren lana lurraldean lan egiten duten elkarte eta entitateekin? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Elkarte eta entitateekin haiek eskatutakoan biltzen gara.
2.	Entitate eta elkarteekin eskariz egiten ditugun bilerekin gain, formalki ezarritako foroetan parte hartzen dute, eta haietan lanak partekatuta eta koordinatzen ditugu.
3.	Elkarriketarako eskaerak eta ezarritako foroekin gain, geuk hartzen dugu aurrea elkarte eta entitate guztiekin biltzeko, eta haien ikuspegi eta iritziak ezagutzeko.
4.	Elkarriketarako eskaerak eta ezarritako foroekin gain, modu sistematikoan programatzen diren bilerak egiten ditugu, udalaren lana entitate eta elkarte horien lanarekin koordinatzeko.
5.	Entitate eta elkarteekin harremanetan izateko plan bat ezarri dugu. Plan horri esker, elkarrekin lan eginda ekintza jakin batzuk garatzen ditugu.

9.2. Eta beste herri erakunde batzuekiko koordinazioa? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Beste entitate publiko batzuekin biltzen gara haiek eskatzen badigute, edo haien beharra badugu.
2.	Gure proiektuak finantzatzeko aukerak beste entitate publiko batzuetan bilatzen ditugu.
3.	Adi gaude beste entitate publikoekin sor litezkeen lankidetzatza-aukerak hautemateko, eta haiekin lankidetzarako akordioak ezartzeko aukerak bilatzen ditugu.
4.	Legegintzaldirako estrategia eta helburuak definitu ondoren, hausnarketa bat planteatzen dugu beste herri administrazioetan aliatuak aurkitzeko moduaren inguruan, gerora hori aurrera eramateko.
5.	Beste entitate publiko batzuekin harremana izateko eta haiekiko lankidetzatza bilatzeko estrategia oso definitua dugu.

9.3 Eta enpresekin? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Udalerriko enpresekin haiek eskatutakoan biltzen gara.
2.	Udalerriko enpresen eskariz egiten ditugun bilerez gain, formalki ezarritako foroetan parte hartzen dute, eta haietan udalerrriaren garapen ekonomikorako lanak partekatu eta koordinatzen ditugu.
3.	Elkarriketa-eskaeren eta ezarritako foroez gain, udalerriko enpresekin biltzeko ekimena geuk martxan jartzen dugu, haiekin kolaboratzeko aukerak aztertzeko, eta horrela, tokiko garapen ekonomikoa sustatu eta gobernu-taldearen balioak bultzatzeko.
4.	Elkarriketarako eskaerez eta ezarritako foroez gain, modu sistematikoan programatzen diren bilerak egiten ditugu, udalaren lana udalerriko enpresen lanarekin koordinatzeko, eta hala, tokiko garapen ekonomikoa bultzatzeko.
5.	Udalerriko enpresekin harremanetan egoteko plan finkatu bat daukagu, tokiko garapen ekonomikorako programa baten barruan. Plan horri esker, elkarrekin lan eginda ekintza jakin batzuk garatzen ditugu.

10. Berrikuntza eta hobekuntza

10.1 Zein esaldik adierazten du hobekien zure udala zein egoeratan dagoen hobekuntza edota modernizaziorako planak egotearekiko? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Gure udalean hobekuntza batzuk egin dira azken urteotan, baina puntualak izan dira, eta ez zetozen argi definitutako estrategia batetik.
2.	Sail edo departamendu batzuek hobekuntza-lanak egin dituzte, aurrez ezarritako estrategia edo plan baten eraginez.
3.	Azken urteotan hainbat hobekuntza egin dira, herritarrentzako arreta indartzeko, eta udal osoan e-administrazioa zabaltzeko.
4.	Udalak bere lana hobetu eta modernizatzeko planak edota estrategiak prestatu ditu azken urteotan.
5.	Aurrekoaz gainera, plan horiek gauzatu egin dira, ebaluatu, eta hasitako bidearekin jarraitzeko plan berriak prestatu dira.

10.2 Jasotako ziurtagiri eta aitortzen aldetik, zein da zure udalaren egoera? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Udalak ez du jaso ziurtagirik ez aitortzen bere kudeaketatik.
2.	Udalaren kudeaketa hainbat hedabidetan balioetsi da, baina ez dugu dokumentu formalik.
3.	Zerbitzu batzuek ISO ziurtagiriak jaso dituzte beren kudeaketatik.
4.	Udalak bikaintasunarekiko konpromisoaren ziurtagiria jaso du Bikaintasunerako Euskal Fundazioarengandik (EUSKALIT)
5.	Udalak Zilarrezko Q-aren aitortpena jaso du bere kudeaketaren bikaintasunagatik.

10.3 Zer nolako erantzukizunak ezarri dira zure udalean hobekuntza eta modernizazioa bultzatzeko? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Ez dago inor espezifikoki hobekuntza edota modernizazioa bultzatzeko ardura bere gain duenik.
2.	Teknikari bat dago, bere ohiko arduren artean udalean hobekuntza eta modernizazioa bultzatzeaz arduratzen dena.
3.	Hobekuntzaz eta modernizazioaz arduratzen den hautetsi bat dago. Halaber, teknikari bat dago, bere ohiko arduren artean udalean hobekuntza eta modernizazioa bultzatzeaz arduratzen dena.
4.	Udalan hobekuntza eta modernizazioa bultzatzeko ardura politikoa alkateak edo udalbatzan garrantzia duen beste kargu publiko batek du. Lan horretan laguntzeko teknikari bat dago, bere ohiko arduren artean udalean hobekuntza eta modernizazioa bultzatzeaz arduratzen dena.
5.	Aurrekoaz gainera, udalean hobekuntza eta modernizazioa bultzatzeko erantzukizuna hartzen duen teknikariak modu eskusiboan egiten du lan hori.

10.4 Ideia berritzaileak identifikatu eta martxan jartzeari dagokionez, zein esaldik deskribatzen du hobekien zure udalaren errealitatea? (Bat bakarrik aukeratu)

1.	Azken urteotan ez da ideia berritzailearik gauzatu gure udalean.
2.	Tarteka, udalerako berrikuntza ekarri duten proposamenak sortu dira. Oro har, pertsona edo talde zehatzen kezkatik sortzen dira, eta departamendu-mailan ezartzen dira.
3.	Berrikuntza bultzatzeko sistematika zehatzik ez badugu ere, lan egiteko ohiko modua nolabait berrituko duten ideiak garatzearen aldeko giroa dago udalean. Azken urteotan ezarri diren zenbait berrikuntzetan ikusi ahal izan da hori.
4.	Azken urteotan guretzat berritzaileak izan diren ekimen batzuk ezarri dira udalean, gauzak beste modu batera nola egin planteatzeko egin den ahalegin planifikatu baten eraginez.
5.	Udalan sistema bat dugu beste administrazioetan edo enpresetan sortzen den alor berritzaile oro identifikatzeko, udalerako bertarako onuragarri iruditzen bazaigu. Ahalegin horri esker, azken urteotan zenbait ekimen berritzaile bultzatu ditugu.

10.5 Zein esango zenuke dela udalaren egoera hobekuntza-taldeek eta beste erakunde batzuekin konparatu eta haiengandik ikasteko jarduerari dagokienez?

1.	Udalan ez da egon hobekuntza-talderik edo beste erakundeekin konparatu eta haiengandik ikasteko jarduerarik, edo oso puntualak izan dira.
2.	Sail edo departamendu batzuk beste erakunde batzuetan izan dira, haien eskarmentutik ikasteko.
3.	Sail edo departamendu batzuk beste erakunde batzuetan izan dira, haien eskarmentutik ikasteko, eta hobekuntza-taldeak osatu dituzte ekimen zehatzak gauzatzeko.
4.	Udalan guk hobetu nahi ditugun alorretan emaitza onak lortu dituzten erakunde batzuk identifikatu ditugu. Halaber, hainbat hobekuntza-talde dago abian.
5.	Udalan guk hobetu nahi ditugun alorretan emaitza onak lortu dituzten eta gure lehentasun estrategikoekin lotuta dauden erakunde batzuk identifikatu ditugu. Konparazio- eta ikaste-jarduerak egin ditugu haiekin, eta horri esker, hainbat hobekuntza-plan gauzatu dugu. Hobekuntza-taldeak ohikoak dira gure erakundeetan.